

Koloreek munduan duten esanahia ezagutuko du Donostiak National Geographic-en argazki erakusketan

- "la Caixa" Fundazioak, Donostiako Udalarekin elkarlanean, *Munduko koloreak* erakusketa aurkeztu du, National Geographic erakundeko argazkilari ospetsuen 42 argazkiz osatua, irudi horietan gure munduak erakusten duen kolore-paleta zabala bildurik.
- Erakusketak kolore bakoitzaren garrantzian eta haren konnotazioetan sakontzen du. Lur planeta aniztasunez betea dago, eta koloreek ez dute esanahi berbera eskualde guztietan. Esaterako, Indian eta Japonian, gorriak araztasuna adierazten du; Afrikan, berriz, doluaren kolorea da, eta, beste herrialde batzuetan, indarra eta kemenarekin lotzen da.
- Joel Sartore, Steve McCurry, Lynn Johnson, Jodi Cobb eta beste argazkilari batzuen irudiek mundu zabaleko paisaien, kulturen eta ohituren muina atzeman dute: Papua Ginea Berritik Indiara, Islandiatik Kongoko Errepublika Demokratikora edota Txiletik Estatu Batuetara.
- Erakusketa *Artea kalean* programaren barruan dago eta, haren bidez, "la Caixa" Fundazioak zientzia eta kultura hurbildu nahi ditu jendearengana, baina ohiko lekuetatik at, hau da, museoetatik eta erakusketa-aretoetatik at.

Donostia, 2023ko irailaren 14a. Eneko Goia Donostiako alkateak; Ángel Garabieta Caixa Bankeko Euskadiko merkataritza zuzendariak; eta Sonia Saénz "la Caixa" Fundazioaren Euskadiko Lurralde ordezkariak, *Munduko koloreak* erakusketa aurkeztu dute gaur Donostiako Alderdieder lorategietan. Erakusketak gure planetako paisaia sorta zabal izugarrira hurbilduko gaitu, bai eta paisaia horiei erabat lotuta dauden koloreetara ere.

National Geographic-eko argazkilarien 42 argazkiren bitartez, "la Caixa" Fundazioak Donostiako Udalarekin elkarlanean antolatutako erakusketak koloreaz hausnartzera gonbidatzen gaitu, kolorea uneoro baitago gure inguruan, eta gai da gure sentieran eragiteko edota gu indarrez betetzeko, edo guran lasaitasuna edo zirrara sortzeko. Haien tonu eta ñabardura guztiak oharkabean pasatzea saihesteko, erakusketa honek koloreak hartu ditu ardatz goitik behera.

Goiznabarreko argiaren urdin lanbrotsuak, ilunabarreko purpura eta gorri minak, zelaietako berde biziak edo udazkeneko hostoen urre-koloreak ageri dira argazki hunkigarrietan, bisitariengan gogoeta inspiratzailea eragiteko koloreen esanahiaz, kalitateez eta historian barna izan duten sinbologiaz.

National Geographic-eko argazkilari ospetsuen artean daude Joel Sartore, Steve McCurry, Michael Nichols, Lynn Johnson, Jodi Cobb, Paul Nicklen eta Frans Lanting, guztiak ere hamaika sari jasotakoak; bada, haien bidez jakingo dugu zer konnotazio dituzten koloreek mundu zabaleko kulturetan, hori, laranja, more, urdin, berde eta zurien sorta zabala oinarri hartuta.

Uhin argitsu baten luzerako desberdintasun ñimiño batek eragiten du ikusten duguna gorria ala urdina den. Gizakiaren psikeak mundu osoko kulturetara hedatu diren konnotazioak eman dizkie koloreei. Koloreek gizakiak erakarri dituzte antzina-antzinatik. Jendeak bilatutako lehen koloreetako bat Tiroko purpura izan zen, antzinako feniziarrek erabilia eta Mediterraneo itsasoko barraskilo batzuen gurinetatik ateratzen dena. Ekoizpen-kostuak hain handiak zirenez, jende aberatsak bakarrik izan zitzakeen tindu horrekin egindako jantziak eta, ondorioz, halako sinbolismo bat sortu zen kolore horren inguruan, eta *errege-purpura* ere esaten zaio.

Erakusketa *Artea kalean* programaren baitan dago eta, haren bidez, "la Caixa" Fundazioak zerupeko museo bihurtu nahi du Donostia. Dibulgazioa pertsonen hazkundera sustatzeko oinarritzko tresna da eta, horregatik, erakusketen bidez, entitatearen helburua da kultura eta zientzia publiko mota ororengana hurbiltzea.

ERAKUSKETAREN ESPARRUAK

Erakusketak esparru bat eskaintzen dio aukeratutako kolore bakoitzari. Hala, esparru bakoitzean jarri diren sei argazkiren bidez eta sarrera-testu txikien bitartez, hainbat gogoeta aletzen ditu aipatu koloreek munduan duten esanahiaz.

HORIA

Nekazari bat belar idorra biltzen, zerrendaz zerrenda, Washingtongo Estatuan (Estatu Batuak), edo gelada txiki bat amaren bizkarrera igota Simien Mendietako parke nazionalean (Etiopia), edo estatua budista baten urre-kolorea Myanmarren, horra hor horitasuna bere ederrean ikusten uzten diguten argazkietako batzuk.

Horia poza da. Eguzkia ere bada, zeinak planeta argitzeaz gain hazkuntza, berotasuna eta lasaitasuna ematen baitizkigu. Baretasuna da. Horia hodeietan desagertu daiteke, eta zurira hainbeste hurbildu, non geure buruari galdetzen baitiogu kolore iragankorra han ote zegoen. Horia adimenaren sinboloa izan daiteke, kolore distiratsu horren argiztapena giza gogamenaren argiztapenaren parekoa baita, baina era berean, gaixotasuna eta sendaketa sinbolizatu ditzake.

LARANJA

Kolore laranja oharkabean pasatzen da maiz, protagonismoa gorriari edo horiari utzita. Hilabete beroenetarantz jotzeko jauzi distiratsuan ageri da, baina era berean, uda negu eraldatzeko bide geldoan ere, non hosto berdeak urre-kolorez eta laranja janzten baitira. Laranja koloreak goiznabarrean darakutsa bere indarra, Zambezi ibaiaren inguruan dabilen ñu talde baten argazkian ikus daitekeen bezala, edota Hawaiiko Mauna Ulu sumendiko laban. Baina kolore barea ere bada, lasaitasunaren oroigarri monje budisten tuniken tonu leunean, Kanbodiako beste monje gazte baten argazkian ageri den bezala.

GORRIA

Erakartzeko eta boterea eta indarra erakusteko erabiltzen du naturak gorria. Urtaro guztietan gailentzen da; baita neguan ere, hau da, dena hiltzen denean, gorria gorosti dirdiratsuan bizi da eta neguko fruituetan. Dardo-igel pozoitsuek gorri min distiratsuarekin ohartarazten diete harrapakariei hilgarriak direla. Gorria ez da sotila. Gure kulturen maitasuna, pasioa eta sua da. Indian, araztasuna esan nahi du eta, hain zuzen ere, Indiako Fakirani tribuaren irudi bat ikus dezakegu erakusketan. Afrikan, berriz, doluaren kolorea da.

URDINA

Gure planetan, etengabe bizi gara urdinaren ñabarduraz inguratuta: laku batean lasaigarria zaigu eta, zeruan, ederki erakusten digu haren handitasuna. Itsasoan, berriz, hondorantz garamatza, ezezagunerantz. Azken horren adibide dira txirla erraldoi baten gainean atsedean hartzen duen gobidoaren argazkia Indonesiako itsas hondoa edota Antartikako izotz-puska flotagarri baten gainean lo-kuluxka egiten duten bi foka karramarrojaleak. Urdina aspaldiko garaietatik dago erlijioarekin lotua. Ageri da meskitetako azulejo urdin turkesa

barean eta, halaber, Greziako mitologiako Zeusen hatzen artean zirtaka ari den zeru-koloreko urdin distiratsuan. Urdina ahaltsua eta mistikoa da.

MOREA

Morea misterioitsua da. Izpilikua, arana, alberjina, purpura-tonu guztiak harrigarriki dira ezberdinak. Purpura leuna da baina nekaezina. Goizeko lehen orduetan ageri da eguzkia zerumugan atera baino lehen, Kanadako San Laurendiko golkoko izotzean atsedean hartzen duen Groenlandiako foka baten argazkian bezala, egunsentiko zeruaren pean, eta, halaber, beste tonalitate batean, Estatu Batuetako Misisquoi ibaiaren panoramian ikusten ditugun udazken koloreetan. Purpurak erregetasuna erretratzen du errege-erreginen tuniken eta koroen tonu oparo belusatueta edo gemen erdigune distiratsuetan.

BERDEA

Berdea bizi-erakustaldi bat da. Berpiztea da, berrikuntza. Lur azalera bateko landare berde baten lehen kimuak esan nahi du bizitza berriz ernatu dela neguaren ondotik. Argazkietan, berdearen distira ikusten dugu urteko lehen te uzta biltzen duen nekazariaren inguruan, Japonian. Animalien munduan ere ageri dira berdeak, Guatemalako ketzal ar baten irudian ageri den bezala.

Berdetasunak osasuna eta bizitasuna erakusten ditu. Berdeak bizirik mantentzen gaitu denok. Gure planetako berdetasunaren sare zabalari dario gizakiok arnasten dugun oxigenoa, eta bizitzaren eta heriotzaren arteko harreman ziklikoa osatzen du, babestu eta gorde beharrekoa.

ZURIA

Erakusketan, neska ezkonberria eta gonbidatuak ari dira dantzan Skopieko kalean, Mazedonian. Zuria hasieren eta amaieren kolorea baita. Araztasunaren kolorea. Etereoa, aratza eta orbangabea.

Zuriaren fintasuna animalia batzuen ilajeen ikus daiteke, hala nola Madagaskarko lemurrarengan, erakusketako argazki batean ageri den moduan. Baina itsugarria ere izan daiteke, gainerako koloreak oro xurgatzen dituelako, pinguinoak paseoan ari diren Antartikako izozmendiaren irudian bezala. Ezerezaren eta osotasunaren kolorea da.

National Geographic Society

National Geographic Society irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta zientziaren, esplorazioaren, hezkuntzaren eta istorioak kontatzearen indarra erabiltzen du gure munduko gauza miragarriak ezagutzera emateko eta babesteko. 1888az geroztik, National Geographic-ek esplorazioaren mugez harata jo du, pertsona ausartengan eta

idea eraldatzaileetan inbertituta, eta 15.000 beka baino gehiago eman ditu zazpi kontinenteetan lan egiteko, urtero bere hezkuntza-eskaintzaren bidez 3 milioi ikaslerengana iritsita, eta mundu zabaleko publiko guztiak erakarrita esperientzia eskusiboen, istorioen eta edukien bidez. Argibideetarako, jo www.nationalgeographic.org webera edo jarrai iezaiezu [Instagram](https://www.instagram.com), [Twitter](https://www.twitter.com) eta [Facebook](https://www.facebook.com) sareetan.

Munduko koloreak

2023ko irailaren 15etik urriaren 19ra

Alderdieder lorategiak – Andia kalearen parean

24 orduz zabalik publiko orokorrarentzat

Bisita gidatuak jendearentzat, oro har:

Larunbatetan 18:00etan, gaztelaniaz

Igandeetan 12:00etan, euskaraz

Ikasleentzako eta bestelako taldeentzako bisitak:

Hitzordua aurrez eskatuta, 900 80 11 37 telefonora deituz

<https://caixaforum.org>

<https://fundacionlacaixa.org/es/>

Hedabideekiko Harremanetarako Saila, "la Caixa" Fundazioa

Andrea Pelayo: apelayo@fundacionlacaixa.org / 618 126 685

Victoria Lobato: 629 732351 / vlcomunicacion@vlcomunicacion.com

Prensa-aretoa: <https://prensa.fundacionlacaixa.org/es>

 [@CaixaForum](https://twitter.com/CaixaForum) [#CaixaForumColoresDelMundo](https://twitter.com/CaixaForum)